

Umeek eskultura eta musikaren arteko harremana ezagutuko dute Chillida Lekun

Chillidak berak eskulturak entzun egiten zituen. Hala adierazi zuen atzo Luis Chillida semeak, udaran, umeentzako, musikaren eta eskulturaren inguruan prestatu dituzten ekintzak aurkezterakoan. Bi tailer izango dira, bata uztailleko larunbatetan, musika instrumentuekin saltseatzen aritzeko, eta bestea abuztuan, eskulturak sortu eta musika egiteko beraiekin.

Eskultura eta musikarekin gozatzeko

Uztailleko ikastaroa Donostiako Orfeoiko kideekin egingo dute. Umeentzako propio prestatutako tailerra da. Lehendabizi bisitatxo bat egingo dute museoan barrena, eskultorearen lana ezagutzeko, ondoren lanen inguruan sortutako galderak erantzungo dituzte, Baschet anaiek aspaldi sortutako musika instrumentu batzuekin. Instrumentuekin saltseatzeko, gozatzeko eta ikasteko, ez da solfeorik behar. Ikastaroa uztailleko lau larunbatetan izango da, gaur hasita, lehenengoa eta azkena gazteleraz. Tailerra dohainik izango da (sarrerako prezioan barne) eta 4 urtetik gorako umeentzat da. Helduek ere parte hartu dezakete (asko jota bik ume bakoitzeko), eta goizeko 11:00etatik 12:30etara izango da.

Zein soinu dute eskulturek?

Galdera honetan oinarrituko da bigarren tailerra, abuztuko. Magali Kivatinetz-ek eta Fernando Jobke-k emango du-te, hain zuzen Eduardo Chillida-Pilar Belzunce Fundazioak ematen duen bekaren irabazleek. Tailerrean Chillidak erabilitako materialak ezagutuko dituzte, eta horietaz baliatuz, eskultura egingo dute ikasleek eta eskulturarekin musika. Ikastaroa bi txandatan izango da, abuztuaren 4 eta 5ean eta 6 eta 7an, 10:30etatik 13:30etara. 20 euro ordaindu behar dira eta aldeztu aurretik izena eman behar da.

Zabaldu!